2.- Matrikula egiten duen pertsona edo subjetu pasiboa bizi den bizikidetza-unitatea indarrean dagoen diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa baino diru-sarrera gutxiago jasotzen ari badira, matrikulari dagokion tasa zero eurokoa izango da. Horretarako, egoera hori egiaztatzen duen ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

Tasa zero hori mantentzeko goragoko ikasturteetan, aurreko ikasturtean euskara ikasteagatiko diru-laguntzak jasotzeko ezarrita dauden asistentzia- eta aprobetxamendu-baldintzak bete izana eskatuko da. Hala ere, Udal Gizarte Zerbitzuak hala ziurtatuta beharra dagoen salbuespeneko kasuetan asistentzia- eta aprobetxamendu-egiaztapena baztertu ahal izango da.

2.- Cuando la persona que se matricule o la unidad convivencial de la que forme parte el sujeto pasivo perciban ingresos inferiores a la cuantía de la renta de garantía de ingresos vigente, la tasa a aplicar por matrícula será de cero euros. Dicha circunstancia se acreditará con la aportación de los justificantes correspondientes.

Para mantener esta tasa cero en los cursos posteriores se deberá también acreditar que en el curso anterior se respetaron las condiciones de asistencia y aprovechamiento mínimas establecidas para el acceso a subvenciones por estudio de euskera. En casos excepcionales de necesidad debidamente justificados por los servicios sociales municipales podrá excluirse esta acreditación de la asistencia y aprovechamiento mínimo.

3.- Matrikula berriztatu dela ulertuko da ikasleek matrikula berria egiten dutenean, edo ikasturtean bertan, edo jarraikakoetan.

3.- Se entenderá por renovación de matrícula cuando los alumnos o las alumnas realicen una nueva matrícula en el mismo curso o cursos consecutivos.

4.- Langabezia-egoerako tasa aplikatu ahal izateko, ikaslegaiak gutxienez hilabete daramala egoera horretan ziurtatu beharko du.

4.- Para poder aplicar la tasa para personas en situación de desempleo, éstas deberán llevar inscritas como desempleadas un mínimo de un mes, debiendo acreditar documentalmente tal circunstancia.

5.- Tasa desberdinak aplikatzeko aukera egonez gero, ikaslearentzako onuragarriena dena aukeratuko da matrikularen zenbatekoa kalkulatzerakoan.

5.- Si se diera la circunstancia que posibilita aplicar diferentes tasas, se tomará como referencia para el cálculo del importe de la matrícula, aquélla que resulte más beneficiosa para el alumno o la alumna.

6.- Erakunde, enpresa edota nortasun juridiko publiko nahiz pribatua duen elkarteren batetik diru-laguntza jasoz gero, ohiko matrikulagatiko tasak baino ez dira aplikatuko matrikularen zenbatekoa kalkulatzeko orduan.

6.- En el caso de que reciban subvenciones por parte de un organismo, empresa o entidad con personalidad jurídica, pública o privada, y, para el cálculo del importe de la matrícula, serán de aplicación únicamente las tasas por matrícula ordinaria.

7.- Erakunde publiko nahiz pribatuek hala eskatuta Udal Euskaltegiko langileek ikastaroak ematen dituztenean, Arrigorriagako Udal Euskaltegiaren Artezkaritza Batzordeak finkatuko du ikastaro bakoitzarengatiko tasa; betiere, emandako zerbitzuaren edota burututako jardueraren kostua kontuan hartuta. Dagoeneko aipatu ditugun ikastaroetarako eskaintzez gain, gainera, Artezkaritza Batzordeak erabakitako tasak ere aplikatu beharko dira.

7.- En caso de que previa solicitud de entidades públicas o privadas, se impartan cursos por el personal del Euskaltegi Municipal la tasa por cada curso será fijada por el Consejo Rector de Arrigorriagako Udal Euskaltegia, teniendo en cuenta el coste del servicio prestado o de la actividad realizada. Además, en el caso de ofertas de cursos diferentes a los ya mencionados, las tasas a aplicar serán decididas también por el Consejo Rector.

3.- KUDEAKETA-ARAUAK

3.- NORMAS DE GESTION

1.- Zerga egitatea Udal Euskaltegiak ikastaroak emateagatiko zerbitzua denez, ordaintzeko betebeharra adingabe batek izango balu, horren legezko ordezkariari dagokio ordainketa hori egitea, matrikula formalizatzen den unean bertan; zerbitzua eskatzen duena talde, elkarte edota erakunderen bat izanez gero (publiko zein pribatua), zerbitzua eskatu duen pertsonak egin beharko du ordainketa, gainerako kide, elkartekide edota langileen izenean.

1.- Constituyendo el hecho imponible la prestación de servicios de impartición de cursos por el Euskaltegi Municipal, en el caso de que la obligación al pago recayera sobre una persona menor de edad, la obligación de contribuir corresponderá a su representante legal en el momento de formalizar la matrícula; en el caso de que quien solicite el servicio sea una agrupación, asociación o entidad, tanto pública como privada el obligado al pago será quien haya solicitado el servicio.

2.-. Behin ikasturtea hasita alta ematen dutenentzat, matrikularen zenbatekoa hiruhileko horretan eta hurrengoetan emandako eskola-orduen arabera kalkulatuko da, auto-ikaskuntza sistemako ikastaroetan izan ezik. Azken horietan, dagokion taulan jasotakoa aplikatuko da.

2.- Para quienes sean alta una vez comenzado el curso, el importe de matrícula, será calculado en base a las horas impartidas en ese trimestre y siguientes, a excepción de las altas en los cursos del sistema de autoaprendizaje, en los que se aplicará lo recogido en la tabla correspondiente.

3.- Matrikularen zenbatekoa ikasturtearen hasieran oso-osorik edo %50eko bi ordainketetan ordaindu beharko da. Ordainketa epetan ordaindu nahi izanez gero, dagokion eskaera bete eta idazkaritzan aurkeztu beharko da matrikularen eskaerarekin batera.

3.- El importe de la matrícula se hará efectivo al comienzo del curso, en un único pago o en dos pagos del 50% cada uno. Si se quiere fraccionar el pago se deberá rellenar la solicitud correspondiente y entregarla en la secretaría junto con la matrícula.

4.- Tasaren ordainketa matrikulatzen den pertsonak berak emandako eta baimendutako banku-kontuko karguaren bitartez egingo da.

4.- El cobro de la tasa se realizará mediante el cargo en la cuenta bancaria que la persona que se matricule facilite y autorice. En el caso de fraccionamiento del pago, el primer cargo se

Ordainketa epetan izanez gero, lehenengo kargua matrikula formalizatzen den unean egingo da eta bigarren kargua hurrengo hilabetean.

hará en el momento de formalizar la matrícula y el segundo cargo en el siguiente mes.

5.- Norbaitek matrikularen baliogabetzea eskatuko balu, Presidente delegatuak, aztertu ondoren, ebazpenaren bidez ebatziko du.

5.- Las solicitudes de anulación de matrícula serán analizadas y resueltas mediante Resolución de Presidencia.

6.- Matrikulatugaiari ezin egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, zerbitzua gauzatzen ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

6.- Cuando por causas no imputables al sujeto pasivo, el servicio no se preste o desarrolle, procederá la devolución del importe correspondiente.

7.- Ordaindu gabeko tasak egonez gero, eta egoera horrek iraun bitartean, ezingo da zerbitzu berririk eskuratu. Beraz, ez da matrikula berririk onartuko zorra ordaindu arte.

7.- La existencia de tasas impagadas determinará la imposibilidad de acceder a una nueva prestación del servicio mientras dura aquella situación, no admitiéndose al efecto nuevas matriculaciones.

Artezkaritza Batzordeak, aldeko 9 botorekin (EAJ-PNVren 7 eta PSE-EE (PSOE)ren 2) eta kontrako EH-BILDUren 5 botorekin, honako hau erabaki du:

1. Tasen aldaketarako proposamena onartzea, 2016-2017 ikasturtean eta hurrengoetan aplikatu ahal izateko.

2. Aipatutako proposamena Arrigorriagako Udalaren Ogasuna Batzordeari bidaltzea, Arrigorriagako Udalbatzak onartzeko.

El Consejo Rector con 9 votos a favor (7 de EAJ-PNV y 2 del PSE-EE (PSOE)) y 5 votos en contra de EH-BILDU, acuerda:

1. Aprobar la propuesta de modificación de tasas para su aplicación en el curso 2016-2017 y sucesivos.

2. Trasladar la citada cuenta a la Comisión de Hacienda del Ayuntamiento de Arrigorriaga, para su posterior aprobación por el Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga.

**8.- UDAL EUSKALTEGIA ZERBITZUA SUSTATZEKO ARRIGORRIAGAN ERROLDATUTAKO PERTSONEN ARTEAN BANATZEKO DIRU-LAGUNTZA BEREZIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZAREN ONARPENA HORRELA BALEGOKIO.**

Erakunde autonomoko presidente delegatua den Sonia Rodriguez Rodriguezek ordenantzaren proposamena aurkeztu du.

Hona hemen proposatu den ordenantza:

**8.- APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA ORDENANZA REGULADORA DE SUBVENCIONES ESPECIALES PARA LA PROMOCIÓN DEL SERVICIO DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL ENTRE LAS PERSONAS EMPADRONADAS EN ARRIGORRIAGA.**

Sonia Rodríguez Rodríguez, Presidenta delegada del Organismo Autónomo, presenta la propuesta de la ordenanza.

A continuación se recoge la ordenanza propuesta:

**ARRIGORRIAGAN ERROLDATUTAKO PERTSONEN ARTEAN UDAL-EUSKALTEGIAREN ZERBITZUA SUSTATZEKO DIRU-LAGUNTZA BEREZIAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

**ZIOEN AZALPENA**

Ordenantza honek oso diru-laguntza mota espezifiko bat arautzea du xede, alegia, Arrigorriagako auzotarren artean udal-euskaltegiaren zerbitzuaren erabilera sustatzekoa. Zenbait aurrekarik eragin dute diru-laguntzaren ildo espezifiko hori beharrezkoa dela ondorioztatzea.

2015eko abuztuan, Arrigorriagako Udal Euskaltegiarekin zerbitzu publikoaren zati bat bien artean finantzatzeko sinatutako hitzarmena salatu zuen Ugao-Miraballesko Udalak. Erabaki hori irizpide ekonomikoetan soilik oinarritzen zen eta nabariki larritu zuen erakunde autonomoaren egoera ekonomikoa. Beraz, udalak erabiltzaileei tasak nabarmen igo behar izan dizkie.

Ordenantza honetan araututako diru-laguntzak Arrigorriagako herritarrei Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren zerbitzuengatiko tasen igoera hori konpentsatzea du helburu, praktikan tasaren muntaren zati bat itzuliz, horretarako sustapen-bidea erabiliz.

Euskaltegian matrikulatutako pertsonen kopuruari dagokionez, azpimarratu behar da aurreko ikastaroekin erkatuta nabarmen jaitsi dela eta joera hori azken urteetan errepikatu egin dela. Horregatik, zerbitzu publikoa gehiago erabiltzea lortzeko eta euskararen erabileraren normalizazioa udalerrian sustatzen jarraitzeko, zerbitzu hori erabiltzen duten udalerriko pertsonei diruz lagundu nahi zaie.

Diru-laguntza ildo berri honen sorketa eta arauketa diru-laguntzen plan estrategikoak eratutako udalaren programa-esparruan

**ORDENANZA REGULADORA DE SUBVENCIONES ESPECIALES PARA LA PROMOCION DEL SERVICIO DEL EUSKALTEGI MUNICIPAL ENTRE LAS PERSONAS EMPADRONADAS EN ARRIGORRIAGA**

**EXPOSICIÓN DE MOTIVOS**

La presente ordenanza tiene por objeto el regular un tipo de subvención muy específica destinada a promocionar y alentar el uso del Servicio del Euskaltegi municipal entre las vecinas y los vecinos de Arrigorriaga. Lo que ha llevado a concluir la necesidad de esta línea específica de subvención es la concurrencia de varios antecedentes

Con fecha agosto de 2015 el Ayuntamiento de Ugao-Miraballes denunció el convenio suscrito con Arrigorriagako Udal Euskaltegia para financiar parte del coste del servicio público entre ambos. Esta decisión, basada únicamente en criterios económicos, agravó considerablemente la situación económica del Organismo Autónomo por lo que el Ayuntamiento se ha visto obligado a realizar una subida sustancial de las tasas a las personas usuarias.

La subvención regulada en esta Ordenanza trata de compensar a la ciudadanía de Arrigorriaga esta subida de tasas por prestación de servicios del Organismo Autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia, instrumentando en la práctica un reintegro parcial de la cuantía de la tasa, utilizando a tal efecto la vía de fomento.

Es de señalar con relación al número de personas matriculadas en el Euskaltegi que la situación actual respecto a cursos anteriores es que ha descendido notablemente, tendencia que viene repitiéndose en los últimos años. Por ello, y con el fin de incrementar el grado de utilización del servicio público, a la vez que seguir fomentando la normalización del uso del euskara en el municipio se quiere subvencionar a aquellas personas del municipio que utilicen dicho servicio.

El encaje de la creación y regulación de esta nueva línea subvencional dentro del marco programático municipal constituido por el Plan

sartzeko, plan estrategiko hori aldatu behar izan da, eta aldaketa hori ordenantza honekin batera izapidetu da.

Estratégico de Subvenciones, ha requerido de una modificación de dicho Plan Estratégico, modificación cuya tramitación se ha desarrollado paralelamente a la de la presente Ordenanza.

Ondorioz, aplikatu behar den arau-esparrua lege hauek osatzen dute: lehenik, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako diru-laguntzen araudi orokorrak; bigarrenik, diru-laguntzen udal-plan estrategikoak berak, aipatu diren aldaketak egin ostean; eta azkenik, eta ordezko gisa, Arrigorriagako Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra, araudi hau nahikoa ez den denetarako. Arau-esparru horrek, jakina, gaur osatzen duten arauen balizko aldaketak, ordezkapenak eta osagarriak aintzat hartu behar ditu.

En consecuencia, el marco normativo que resulta aplicable queda constituido en primer término por la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones y el Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio; en segundo término por el propio Plan Estratégico Municipal de Subvenciones, una vez realizadas en el mismo las modificaciones a las que se ha hecho referencia; y en último término, y con carácter supletorio, por la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Arrigorriaga en todo aquello en que la presente regulación resulte insuficiente. Dicho marco normativo, obviamente, debe tener en cuenta las eventuales modificaciones, sustituciones y complementos de las normas que hoy lo integran.

Ordenantza hau egiterakoan, erakunde autonomoaren ikasturte honetako plana kontuan hartu da; haren helburuen artean, aurreko urteetan bezala, ikasleen kopuruari eustea dago, aurretik aipatu denez beheranzko joera dagoela aintzat harturik.

A la hora de elaborar esta Ordenanza se ha tenido en cuenta el Plan del curso actual del Organismo Autónomo que, entre sus objetivos, recoge, al igual que en años anteriores, el mantenimiento del número de alumnos y alumnas, teniendo en cuenta esa tendencia a la baja mencionada con anterioridad.

**1. artikulua. Diru-laguntzaren xedea.**
Diru-laguntzaren xedea Arrigorriagan erroldatuta dauden herritarrek Arrigorriagako Udal Euskaltegia zerbitzu publikoa erabil dezaten sustatzea da, zerbitzuan matrikulatzeagatik ezarritako tasaren kostuaren zati bat itzuliz, sustapen-jardueraren bidez.

**Artículo 1.- Objeto de la subvención.**
El objeto de la subvención es la promoción de la utilización del servicio público Arrigorriagako Udal Euskaltegia por parte de los y las ciudadanas empadronadas en Arrigorriaga, financiándose, vía actividad de fomento, una parte del coste de la tasa establecida por la matriculación en el servicio público mediante reintegro de dicha parte.

**2. artikulua. Pertsona eta erakunde onuradunen betekizunak.**
Diru-laguntzak betekizun hauek betetzen dituzten pertsona fisikoentzat dira:
1. Arrigorriagako Udal Euskaltegian matrikulatuta egon behar dute.
2. Matrikula formalizatzean Arrigorriaga udalerrian erroldatuta egon behar dute.

**Artículo 2.- Requisitos de las personas y entidades beneficiarias.**
Estas subvenciones se dirigen a aquellas personas físicas que cumplan los siguientes requisitos:
1.- Estar matriculadas en el Euskaltegi municipal de Arrigorriaga.
2.- Estar empadronadas en el municipio de

Arrigorriaga en el momento de formalizar la matrícula.

**3. artikulua. Eskaerak aurkezteko modua eta epea.**
Erabiltzaileek matrikula formalizatzen duten unean eskatu beharko dute diru-laguntza, eredu normalizatuaren arabera; euskaltegiaren bulegoetan jaso ahalko da eredua, eta haren webgunean ere egongo dira eskuragarri (www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus).

**Artículo 3.- Forma y plazo de presentación de las solicitudes.**
Las personas usuarias deberán solicitar la subvención en el mismo momento de formalizar la matrícula conforme al modelo normalizado que se podrá recoger en las dependencias del Euskaltegi y también estarán disponibles en la web del Euskaltegi (**www.arrigorriagakoeuskaltegia.eus**).

**4. artikulua. Diru-laguntza emateko prozedura.**
Diru-laguntzaren ebazpena matrikula formalizatzen den unean emango da, eskatutako betekizunak egiaztatu ostean. Diru-laguntzak emateko ebazpen hori euskaltegiko ediktu-taulan eta webgunean argitaratuko da.

Diru-laguntza eskaeraren baten emakida ukatzen bada, pertsona interesatuari arrazoiak azalduko dizkiote eta jakinaraziko diote.

**Artículo 4.- Procedimiento de concesión de la subvención.**
La resolución de la subvención será dictada en el momento de formalizar la matrícula, previa comprobación de los requisitos exigidos. Dicha resolución de concesión de subvenciones será publicada en el tablón de edictos del Euskaltegi y en su página web.
La denegación de la concesión de alguna solicitud de subvención será realizada motivadamente y notificada a la persona interesada.

**5. artikulua. Diru-laguntzaren ordainketa.**
Matrikula formalizatzen eta ebazpena ematen den unean ordainduko da diru-laguntza, eskatzaileak erakunde autonomoarekin matrikula-tasaren ondorioz daukan zordunketa konpentsatuz.

**Artículo 5.- Abono de la subvención.**
El abono de la subvención será realizado en el mismo momento de la formalización de la matrícula y dictado de la Resolución, mediante compensación con el débito que el o la solicitante tenga con el Organismo Autónomo por razón de la tasa de la matrícula.

**6. artikulua. Diru-laguntzaren munta.**
Diru-laguntzaren munta matrikula gisa ordaindu beharreko kopuruaren % 33,33 izango da.

**Artículo 6.- Cuantía de la subvención.**
La cuantía de la subvención será de un 33,33% de la cantidad a abonar en concepto de tasa de matrícula.

**7. artikulua. Ebazteko organo eskuduna.**

Arrigorriagako Udal Euskaltegia erakunde autonomoaren presidentzia izango da ebazteko eskuduna.

**Artículo 7.- Órgano competente para resolver.**
Será competente para resolver la presidencia el organismo autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia.

**8. artikulua. Bateragarritasuna beste diru-laguntza eta laguntza publiko batzuekin.**
Ordenantza honek araututako diru-laguntzaren emakida bateragarria izango da Arrigorriagako Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorrean jasotako euskara ikasteko bekekin. Metatutako diru-laguntza eta beka guztien

**Artículo 8.- Compatibilidad con otras subvenciones y ayudas públicas.**
La concesión de la subvención regulada por esta ordenanza será compatible con las becas al estudio de euskara contempladas en la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Arrigorriaga. La cuantía de

munta ezingo da inoiz une bakoitzean ezarritako tasaren prezioaren % 100 baino altuagoa izan.

todas las subvenciones y becas acumuladas en ningún caso podrá superar el 100% del precio de la tasa establecida en cada momento.

**9. artikulua.- Aplikatu beharreko beste arau batzuk.**

Ordenantza honek xedatzen ez duen horretarako, diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onetsitako diru-laguntzen araudi orokorra edo, hala badagokio, horiek biak ordezten dituzten arauak aplikatuko dira; horrez gain, ordezko gisa, Arrigorriagako Udalaren diru-laguntzei buruzko ordenantza orokorra aplikatuko da, beti ere diru-laguntzen plan estrategikoaren esparruan.

**Artículo 9.- Otras normas de aplicación.**

En lo no previsto en la presente ordenanza se aplicará la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Reglamento General de Subvenciones aprobado por Real Decreto 887/2006, de 21 de julio, o las normas que en su caso vengan a sustituir a las dos citadas; y, supletoriamente, se aplicará la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Arrigorriaga, siempre en el marco del Plan Estratégico de Subvenciones.

**Azken xedapena. Indarrean sartzea.**

Testu osoa BAOn argitaratutakoan eta, edozein kasutan ere, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 65.2 artikuluan aipatutako 15 eguneko epea igarotakoan sartuko da indarrean ordenantza hau.

**Disposición Final- Entrada en vigor.**

La presente ordenanza entrará en vigor una vez publicado su texto íntegro en el BOB y una vez transcurrido en todo caso el plazo de 15 días señalado en el artículo 65.2 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local.

Artezkaritza Batzordeak, aldeko 9 botorekin (EAJ-PNVren 7 eta PSE-EE (PSOE)ren 2) eta kontrako EH-BILDUren 5 botoekin, honako hau erabaki du:

1. Udal Euskaltegia zerbitzua sustatzeko Arrigorriagan erroldatutako pertsonen artean banatzeko diru-laguntza bereziak arautzen dituen ordenantzaren proposamena onartzea.

2. Aipatutako proposamena Arrigorriagako Udalari bidaltzea, Udalbatzak onartzeko.

El Consejo Rector con 9 votos a favor (7 de EAJ-PNV y 2 del PSE-EE (PSOE)) y 5 votos en contra de EH-BILDU, acuerda:

1. Aprobar la propuesta de la ordenanza reguladora de subvenciones especiales para la promoción del servicio del Euskaltegi Municipal entre las personas empadronadas en Arrigorriaga.

2. **2.** Trasladar la citada propuesta al Ayuntamiento de Arrigorriaga, para su posterior aprobación por el Pleno.

## 9.- 2016. URTEARI DAGOKION AURREKONTUAREN EGITASMOA ETA EUSKALTEGIAREN PLANTILLA

Sonia Rodriguezek, Erakunde Autonomoko Presidente delegatuak, 2016ko ekitaldirako aurkeztu den aurrekontu-proiektuaren berri eman du.

## 9.- PROYECTO DE PRESUPUESTO PARA EL EJERCICIO 2016 Y PLANTILLA DEL EUSKALTEGI.

Sonia Rodriguez, Presidenta delegada del Organismo Autónomo, da cuenta del proyecto de presupuesto que se presenta para el ejercicio 2016.

Kontuan izanik Aurrekontuaren tramitazioan indarrean dagoen legediak eskatutako baldintzak bete direla, Artezkaritza Batzordeak Aurrekontua osatzen duten dokumentuak aztertu ditu.

Resultando que en la tramitación del Presupuesto se han seguido los requisitos exigidos por la legislación vigente, el Consejo Rector pasa a examinar los documentos que lo componen.

Ikusita kontu-hartzaile delegatuak gai horri buruz burututako txostena. Bertan honakoa azaltzen da:

Visto el informe emitido al respecto por la Interventora delegada en el que expone:

1) Aurrekontua prestatzeko aintzat hartu da Arrigorriaga Udalaren diru-laguntza ekarpena, erakunde autonomo honen defizitari aurre egiteko neurrian; gordailua eraginkorra izan dadin aipatutako udalaren 2016. urteko aurrekontuan diru-laguntza gordailu gisa jarri beharko da.

1) El presupuesto ha sido confeccionado presupuestándose la subvención-aportación del Ayuntamiento de Arrigorriaga en cuantía suficiente para paliar el déficit de este Organismo Autónomo; consignación que solamente tendrá efectividad si en el presupuesto para el 2016 del citado Ayuntamiento se consigna la correspondiente subvención.

2) Transferentzien aurreikuspenei dagokienez, nabarmendu behar dugu HABEren diru-laguntza 164.232,70 eurokoa izango dela.

2) En cuanto a la previsión de transferencias podemos destacar la de HABE que ascienden a 164.232,70 € .

3) Gastuen egoeran, langileen ordainsarietarako aurrekontuan jasotako zenbatekoak %1eko igoerarekin areagotu dira 2015eko abenduaren 31n indarrean zeudenekin alderatuta, 2016. urterako Estatuko Aurrekontu Orokorren urriaren 29ko 48/2015 Legeak ezarri zuen moduan. Udalean euskararen erabilera normalizatzeko lanak egiten ari den pertsonaren ordezko irakasleari dagozkion ordainsariak ere aurrekontuan jaso dira. Aldi baterako irakasleak kontratatzeak eragindako gastuak ez dira aurrez ikusi aurrekontuan; baina behar izanez gero, aurrekontuan aldaketak aplikatuko dira, udalaren ekarpen handiagoen bitartez finantzatutakoak.

3) Que en el estado de gastos, los importes presupuestados para retribuciones del personal han experimentado un incremento de un 1% respecto a los vigentes a 31 de diciembre de 2015, tal y como establece Ley 48/2015, de 29 de octubre, de Presupuestos Generales del Estado para el año 2016. Se han presupuestado las retribuciones correspondientes a la profesora sustituta de quien está realizando funciones de Normalización del Uso del euskara en el Ayuntamiento. Respecto a los gastos derivados de la contratación de profesores temporales no se ha presupuestado cantidad alguna, si bien, si fuera necesario, se recurriría a modificaciones presupuestarias financiadas por mayor aportación del Ayuntamiento.

Nabarmena da ikasleei zuzendutako diru-laguntzak jasotzen dituen partidan izandako igoera. Gorakada hori udal euskaltegi zerbitzu publikoa erabiltzeagatik indarrean jarri nahi den ordenantzaren ondorioa da. Aipatutako partidan jasotako zenbatekoa 9.000 eurokoa da.

Señalar el aumento en la partida de subvenciones al alumnado como consecuencia de la nueva ordenanza de ayudas que se quiere poner en vigor con el objeto de fomentar el uso del servicio público euskaltegi municipal. La cantidad consignada asciende a 9.000 €.

4) Tasa bidezko sarreren zenbatespenari dagokionez, igoera jaso da, tasen igoera handia

4) En cuanto a la estimación de ingresos por tasas, se ha producido un incremento debido al

izan baita. Tasak ezartzen dituen ordenantza fiskala indarrean jarriko da datorren ikasturtean.

considerable aumento en el precio de las tasas, ordenanza fiscal que entrará en vigor para el próximo curso.

HABEren diru-laguntzaren zenbatekoa txikitu egin da aurreko ekitaldiarekin erkatuta, Euskaltegiaren jardun lektiboa jatsi delako.

El importe de la subvención de HABE ha disminuído respecto al ejercicio anterior debido al descenso de la actividad lectiva del Euskaltegi.

Bada, aurrekontua nibelatu ondoren, eta ez dagoenez hasierako defizita, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 14.6 artikuluak eskatzen duen gisan, arau horretako 6.1 artikuluak agintzen duen dokumentazioa aztertuta ondorioztatu da aipatutako aurrekontuak lege osaera zuzena duela. Horrez gain, Aurrekontu Egonkortasunari buruzko 2/2012 Lege Organikoan ezarritako egonkortasun irizpideak errespetatzen ditu.

Establecida pues la nivelación del presupuesto, no existiendo por tanto déficit inicial tal y como exige el artículo 14.6 de la Norma Foral 10/2003 presupuestaria de las Entidades Locales y, examinada la documentación que preceptúa el artículo 6.1. de la misma Norma se deduce la correcta formación legal del referido presupuesto. Así mismo, respeta los criterios de estabilidad establecidos en la Ley Orgánica 2/2012 de estabilidad presupuestaria.

Horrenbestez, jakinarazi behar da aurrekontua osatzerakoan lege agindu aplikagarriak aintzat hartu direla, eta kalkuluen arabera dagokion ekitaldian likidatu beharreko eskubide eta betebeharrei aurre egiteko aurreikuspen arrazionalak jaso dituela, aurrekontua osatzen duten kontzeptu bakoitzari dagokionez. Halaber, nabarmendu behar da aurrekontuan jasotako eskubideak likidatzen ez badira, defizita izango dela, seguruenik betebeharrak ez direlako aldatuko.

En conclusión, se informa que el Presupuesto ha sido confeccionado observando las prescripciones legales aplicables y contiene las previsiones racionales para atender las obligaciones y los derechos que se calculan liquidar durante el correspondiente ejercicio, por cada uno de los conceptos que lo integran. Así mismo, resaltar que en caso de no liquidar los derechos recogidos en el presupuesto se produciría déficit, ya que las obligaciones se mantendrían probablemente invariables.

Bestalde, aurrekontuaren edukiari buruzko eta aurrekontu honek indarrean dagoenarekiko dituen aldaketa nagusiei buruzko azalpen-memoria irakurri da.

Así mismo, se da lectura de la memoria explicativa del contenido del presupuesto y de las principales modificaciones que presenta en relación con el vigente.

Ondoren, Presidente delegatuak aurkeztutako aurrekontu-proiektua Artezkaritza Batzordearen onarpenaren menpe uztea erabaki da.

A continuación, se decide someter a la aprobación del Consejo Rector el proyecto de presupuesto presentado por la presidenta delegada.

Artezkaritza Batzordeak bertaratutakoen erabateko adostasunez, aldeko 14 botorekin (EAJ-PNVren 7, EH-BILDUren 5 eta PSE-EE (PSOE)ren 2), honako hau erabaki du:

El Consejo Rector por unanimidad de los asistentes, con 14 votos a favor (7 de EAJ-PNV, 5 de EH-BILDU y 2 del PSE-EE (PSOE)), acuerda lo siguiente:

1) Udal Euskaltegia Erakunde Autonomoaren 2016ko ekitaldirako Aurrekontuaren proposamena onartzea kapituluen araberako

1) Aprobar la propuesta del Presupuesto para el ejercicio 2016 del Organismo Autónomo Arrigorriagako Udal Euskaltegia con el

laburpen honekin: siguiente resumen por capítulos:

| GASTUEN LABURPENA / RESUMEN GASTOS | | |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK** | **IZENA**<br>DENOMINACION | **ZENBATEKOA**<br>IMPORTE |
| | A) **OHIKO ERAGIKETA** / OPERACIONES CORRIENTES | |
| **1** | **Pertsonal gastuak**<br>Gastos de personal | **429.452,70** |
| **2** | **Ohiko ondasunetarako eta zerbitzuetarako gastuak**<br>Gastos de bienes corrientes y servicios | **25.500,00** |
| **4** | **Ohiko transferentzia**<br>Transferencias corrientes | **9.010,00** |
| | B) **KAPITAL ERAGIKETAK** / OPERACIONES DE CAPITAL | |
| **6** | **Inbertsio errealak**<br>Inversiones reales | **1.300,00** |
| **8** | **Finantza aktiboak**<br>Activos financieros | **12.000,00** |
| **9** | **Finantza pasiboak**<br>Pasivos financieros | **10.00** |
| | **GASTUEN AURREKONTU GUZTIRA**<br>TOTAL PRESUPUESTO GASTOS | **477.272,70** |

| SARREREN LABURPENA / RESUMEN INGRESOS | | |
|---|---|---|
| **KAPITULUAK** | **IZENA**<br>DENOMINACION | **ZENBATEKOA**<br>IMPORTE |
| | A) **OHIKO ERAGIKETAK** / OPERACIONES CORRIENTES | |
| **3** | **Tasak eta bestelako sarrerak**<br>Tasas y otros ingresos | **45.020,00** |
| **4** | **Ohiko transferentziak**<br>Transferencias corrientes | **420.232,70** |
| **5** | **Ondare sarrerak**<br>Ingresos patrimoniales | **10,00** |
| | B) **KAPITAL ERAGIKETAK** / OPERACIONES DE CAPITAL | |
| **8** | **Finantza aktiboak**<br>Activos financieros | **12.000,00** |
| **9** | **Finantza pasiboak**<br>Pasivos financieros | **10.00** |
| | **SARREREN AURREKONTU GUZTIRA**<br>TOTAL PRESUPUESTO INGRESOS | **477.272,70** |

2) Goi mailako organoa den aldetik, aurrekontuaren proiektu hau Arrigorriagako Udaleko Udalbatzara eramatea, bertan onartua izan dadin eta, ondoren, tramitazioa egin dadin.

2) Elevar al Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga, como órgano superior el presente proyecto de presupuesto para su aprobación y subsiguiente tramitación.

3) Udal Euskaltegiak 2016ko ekitaldian izango duen langileen zerrenda onartzea. Hain zuzen ere, honako taula honetan jasotakoa da:

3) Aprobar la plantilla del Euskaltegi Municipal para el ejercicio 2016 y que es la recogida en la siguiente tabla:

| LAN-KONTRATUKO LANGILEAK / LABORALES | | | |
|---|---|---|---|
| ADMINISTRAZIO BEREZIKO ESKALA<br>ESCALA DE ADMINISTRACIÓN ESPECIAL | | | |
| **Azpieskalak**<br>Subescalas | **Taldea**<br>Grupo | **Zenbakia**<br>Número | **Oharrak**<br>Observaciones |
| **A) Azpieskala teknikoa: Erdi mailako teknikariak /** Subescala técnia: Técnicos medios | | | |
| **Euskara irakasleak**<br>Profesores/as de euskara | B | 5 | 1 HUTSIK<br>1 VACANTE |
| **B) Zerbitzu bereziko azpieskala: ofizioetako langileak /** Servicios especiales: personal de oficios | | | |
| **Garbiketarako langilea**<br>Operario/a de la limpieza | E | 1 | JARDUNAREN %42,4.<br>HUTSIK<br>42.4% JORNADA<br>VACANTE |
| ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA<br>ESCALA DE ADMINISTRACIÓN GENERAL | | | |
| **Azpieskalak**<br>Subescalas | **Taldea**<br>Grupo | **Zenbakia**<br>Número | **Oharrak**<br>Observaciones |
| **C) Laguntzaileen azpieskala /** Subescala auxiliares | | | |
| **Administrari laguntzailea**<br>Auxiliar Administrativo/a | D | 1 | |

**10.- 2016. URTEARI DAGOKION LANPOSTUEN ZERRENDAREN ONARPENA HORRELA BALEGOKIO.**

Sonia Rodriguez erakunde autonomoko Presidente delegatuak, 2016rako lanpostu-zerrendaren proposamena aurkeztu du.

Hona hemen aipatutako lanpostuen zerrenda:

**10- APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA 2016.**

Sonia Rodriguez, Presidenta delegada del Organismo Autónomo presenta la propuesta de la relación de puestos de trabajo para el año 2016.

A continuación se recoge la citada relación de puestos de trabajo:

**2016.URTERAKO LANPOSTUEN ZERRENDA**

| **KOD.**<br>COD. | **IZENA**<br>DENOMINACION | **ESKALA**<br>ESCALA | **AZPIES.**<br>SUBES. | **TITULAZIOA**<br>TITULACIÓN | **EGOERA**<br>SITUACIÓN | **ZE**<br>F.P. | **TALDEA**<br>GRUPO | **KH**<br>C.D. | **LIBO**<br>CEPT 2016 | **H.E.**<br>PERFIL | **DERR. DATA**<br>FEC. PRECEP. |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01 | **Irakasle titularra**<br>Profesor-a titular | **Admin. berezia**<br>Especial | **Teknikaria**<br>Técnica | **Erdi mailako teknikaria**<br>Medio-a | **Beterik**<br>Cubierta | C | A2 | 17 | 20.109,84 | 4 | TP |
| 02 | **Irakasle titularra**<br>Profesor-a titular | **Admin. berezia**<br>Especial | **Teknikaria**<br>Técnica | **Erdi mailako teknikaria**<br>Medio-a | **Beterik**<br>Cubierta | C | A2 | 17 | 20.109,84 | 4 | TP |

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 03 | **Irakasle titularra** Profesor-a titular | **Admin. berezia** Especial | **Teknikaria** Técnica | **Erdi mailako teknikaria** Medio-a | **Hutsik** Vacante | C | A2 | 17 | 20.109,84 | 4 | TP |
| 04 | **Irakasle titularra** Profesor-a titular | **Admin. berezia** Especial | **Teknikaria** Técnica | **Erdi mailako teknikaria** Medio-a | **Beterik** Cubierta | C | A2 | 17 | 20.109,84 | 4 | TP |
| 05 | **Irakasle titularra** Profesor-a titular | **Admin. berezia** Especial | **Teknikaria** Técnica | **Erdi mailako teknikaria** Medio-a | **Beterik** Cubierta | C | A2 | 17 | 20.109,84 | 4 | TP |
| 06 | **Administrari lag.** Aux.Administrativo | **Admin. orokorra** General | **Laguntz.** Auxiliar | **Eskola grad.** Graduado-a | **Beterik** Cubierta | C | C2 | 15 | 22.090,36 | 3 | 291200 |
| 07 | **Garbiket.langilea** Operario-a limpieza | **Admin. berezia** Especial | **Zerb.berez** Serv.espec. | **Ikask.ziurtag**. Cert. Estud. | **Hutsik** Vacante | C | E | 8 | 6.303,75 | 1 | **E.D.** N.T. |

(1) **07 plazak jardunaldiaren %42,4ko arduraldia dauka.** El puesto 07 tiene una dedicación del 42,4% de jornada

(2) **Irakaskuntzako zuzendaritza-lanek 1.679,25 euroko osagarria dute urtean. Erantzukizun administratiboko lanen kasuan, osagarria 3.357,89 eurokoa da urtean.**
El desempeño de las funciones de dirección académica conlleva la percepción de un complemento de 1.679.25 €/año. En el caso de las funciones de responsabilidad administrativa el complemento asciende a 3.357,89 €/ año.

Artezkaritza Batzordeak bertaratutakoen erabateko adostasunez, aldeko 14 botorekin (EAJ-PNVren 7, EH-BILDUren 5 eta PSE-EE (PSOE)ren 2), aipatutako proposamena onartzea eta onartutakoa Arrigorriagako Udaleko Udalbatzara eramatea erabaki du, bertan onetsia izan dadin.

El Consejo Rector por unanimidad de los asistentes, con 14 votos a favor (7 de EAJ-PNV, 5 de EH-BILDU y 2 del PSE-EE (PSOE)), acuerda aprobar la citada propuesta y trasladar lo acordado al Pleno del Ayuntamiento de Arrigorriaga para su posterior aprobación.

## 11.- FAKTURA ZERRENDA ONESTEA HORRELA BALEGOKIO.

Artezkaritza Batzordeak bertaratutakoen erabateko adostasunez, aldeko 14 botorekin (EAJ-PNVren 7, EH-BILDUren 5 eta PSE-EE (PSOE)ren 2), fakturen zerrenda onartzea erabaki du, zenbatekoa 1.830,02 eurokoa da.

## 11.- APROBACIÓN SI PROCEDE DE LA RELACIÓN DE FACTURAS.

El Consejo Rector por unanimidad de los asistentes, con 14 votos a favor (7 de EAJ-PNV, 5 de EH-BILDU y 2 del PSE-EE (PSOE)), acuerda aprobar la relación de facturas, cuyo importe asciende a 1.830,02 euros.

Horrela, bada, bilera amaitutzat jo da eta guztiaren akta jaso da.

Se da por finalizada la reunión, extendiéndose la presente acta.

Arrigorriagan, 2016ko martxoaren 18an

PRESIDENTE DELEGATUA

IDAZKARI DELEGATUA